

# **AISA Harrera-Ikastaroak**

## **HABE**

### **Zer dira AISA Harrera-Ikastaroak?**

Kanpotik etorritako jendearentzat euskara ikasten hasteko sarrera ikastaroak.

### **Norentzat dira?**

16 urtetik gorako etorkina izan, Euskadiko Autonomia Elkartean bizi eta euskara batere ez dakitenentzat.

### **Zertarako dira?**

Etorkinek euskal gizartea ezagutu eta euskararen ikasketan lehenengo pausuak emateko.

### **Zenbat irauten dute?**

60 ordu guztira: 6 ordu astean 3 egunetan banatuta.

### **Zer ikasten da?**

Ikastaro hauetan gure gizartea ezagutzeko gai motibagarriak landuko dira, hala nola: agurrak, zenbakiak, familia, eskola, garraioa, osasuna, kirola, azoka...Ariketek, batez ere, gai horietako hiztegia eta hizkuntzaren oinarritzko ezagutza lantzeko balio dute (kaleetako errotuluak, kartelak...).